

Hauteskunde sindikalak :: 2019-2023rako lan-lerroak AZPn



1. Egonkortasuna eta karrera profesionala



- **Langileon egonkortasunaren aldeko erabakiak hartzea**
 - o Errektore-hauteskundeetan emandako hitza bete dezatela!
 - o Lege propioa aldarrikatu langileon egonkortasuna ziurtatzeko
 - o EHUn emandako zerbitzuek balorazio espezifikoa eduki dezatela
 - o Ekimenak bultzatu UPV/EHU zein Eusko Legebiltzarrean

- **Lan Eskaintza Publiko bermedunak**



- o Estatuan sinaturiko (UGT, CCOO) akordioen ondorioz AZPkoen enplegua arriskuan jar dezaketen LEP deialdiei EZ! Eragin kaltegarriak (ERE masiboak) gainditzeko proposamenak jorratzea
- o EHUn sindikatu gehienek onartutako LEP-en inguruko oinarrizko akordioan jasotako neurriak defendatzea eta egikaritzea aurrerantzean ere (test moduko probak, %45era arteko meritoak EHUn emandako zerbitzuengatik, ...)

- **Plantilla handitzea**



- o Lan Postuen Zerrendatik kanpo dauden 100 kontratuak bere barnean sartzea behingoz
- o Erreferentziazko Plantilla eguneratzea, egun dauden beharrianetara egokitzeko, beharrezko AZPko langile kopurua handituz
- o AZP/IRI ratioak Estatuko unibertsitate publikoen batez bestekoan kokatzea
- o Jardunean ez dagoen pertsonala lehen egunetik ordezkatzea

- **Karrera profesionala garatzeko neurriak bultzatzea**



- o Guztiontzako (karreradun funtzionario eta laboral finakoak zein behin-behinekoak eta aldi baterakoak) eskubide gisa garatzea
- o Lekualdaketa eta barne promozio prozesuak maiztasun adostuarekin egitea. Birkokapen prozesuak adostea
- o Promozio horizontala garatzea
- o Prestakuntza eskaintza zabala, funtzionario zein lan kontratudun langileen esparruan

2. Lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea



- Ikastegien Berrantolaketari buruzko Akordio Markoan jasotako konpromisoak garatzea: enplegu mailari eustea, pertsonalaren adskripzioa Campusean mantentzea...
- Organigramak sindikatu eta Administrazioaren artean adostea
- Egungo kontziliazio neurriak hobetzea: gurasotasun-baimena (8/12/16 asteak 9/13/18 bilakatzea), zaintza erantzunkideari bide emateko lanaldia, haurtzaindegiak eta udalekuak Campus guztietan...
- Lanaldi-aukerak hobetzeko negoziazioak burutzea
- Telelanerako aukerak zabalduz, beste lanaldi mota bat bezalako trataera ematea
- Ikastegien itxiera 20:00-20:30ean, gehien jota, ezartzea
- Udan ikastegien derrigorrezko itxialdiari EZ!

3. Negoiazio kolektibo eraginkorra



- 2017an sindikatuen gehiengoak (UGT, Steilas, ELA) administrazioarekin erdietsitako Lan-poltsen kudeaketarako araudi berriari eta Zerbitzu Betekizunen eta Eginkizunen Esleipenen akordioei EZ!
 - o Akordio horiek duten diskrezionalitate maila handia, kontraesanak eta diskriminazioa gainditzea
 - o Karrera profesionala garatzeko tresnak izan daitezzen egokitzea
 - o Behin-behineko eta aldi baterako langileen eskubideak defendatu ditzaten sustatzea
- Lan-poltsen kudeaketa benetan gardena izatea

4. Zerbitzu publikoen defentsa irmoa



- Kanpoko enpresei eta azpikontratazioei ateak itxi: IKT zerbitzuan, Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuan, Mantenu Zerbitzuan...

5. Murrizketak gainditzea. Eros-ahalmena berreskuratzea



- Eragindako eros-ahalmenaren galera (%12) berreskuratzeko egungo soldata-igoera mugatuak gainditu KPIren gaitetiko igoerak planteatuz
- Itzarriren %3aren ekarpen osoa berreskuratzea
- Lanpostu guztien balorazioa burutzea, EHUko Zuzendaritzak burutu nahi duen balorazio mugatua gaindituz

6. Lan Osasuna bermatzea



- Gaixotasun, lan-istripu eta lan-baldintzek kaltetutako langileen jarraipena egitea
- Arrisku kimiko, biologiko, ergonomiko eta psikosozialen prebentzio neurriak indarrean jarri eta egikaritzea
- Langileok lanpostuan ditugun lan arriskuen ebaluaziorako Plana burutu eta adostutako epe zehatzen arabera betetzea
- Lanak eragindako Aldi baterako Ezgaitasunak (altak, bajak, artatzea...), Mutuarekiko hitzarmena bertan behera utzita, Osakidetzarekin hitzartzea.
- Bilboko esparruan Osasun Zerbitzua ezartzea
- Ohitura eta lan-eremu osasuntsuak sustatzea